ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko abuztuaren 7a, asteazkena • 90 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Talde politikoen esleipena

Aguraingo Udalak, 2019ko uztailaren 3an egindako bilkura berezian, hau erabaki zuen:

1) Talde politikoen esleipenak mantentzea, 2019ko Aurrekontua Betearazteko Arauak ezarritakoaren arabera. Hauek dira esleipenak:

1. Udalbatzak, urteko aurrekontuaren kontura, dotazio ekonomiko bat esleitu ahal izango die talde politikoei, osagai bat finkoa izango duena, talde guztientzat berdina, eta beste bat aldakorra, talde bakoitzeko kide kopuruaren araberakoa, beti ere Estatuaren Aurrekontu Orokorren legeetan ezarritako mugen barruan. Esleipen hori ezingo da erabili korporazioaren zerbitzura dauden edozein modutako langileei ordaintzeko edo ondare aktibo finkoen izaera eduki dezaketen ondasunak erosteko. 2019rako dotazioa, gehienez ere, 10.200,00 eurokoa izango da.

2. Atxikirik ez dauden kideen eskubide ekonomikoak eta politikoak ezingo dira izan jatorrizko taldean egonik izango lituzketenak baino handiagoak, eta udalbatzak osoko bilkuran zehaztu bezala egikarituko dira, edo erregelamendu organikoak ezarritakoaren arabera, baldin badago.

3. 2019. urtean, 150,00 euroko dotazio ekonomiko finkoa esleituko zaio talde bakoitzari hilero, eta 50,00 euroko beste aldakor bat, hilero, taldeko kide bakoitzeko. Udalbatzako talde politikoen dotazio ekonomikoa apirilean, uztailean, urrian eta urtarrilean ordainduko da. Talde politikoek dotazioaren kontabilitatea eramateko betebeharra daukate, eta udalbatzaren esku utzi beharko dute hark eskatzen dien guztietan.

2) Ebazpen hau ALHAOn eta iragarki taulan argitaratzea.

Eta argitaratu egiten da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikuluan xedatutakoa betez.

Agurain, 2019ko uztailaren 4a

Alkatea
ERNESTO SAINZ LANCHARES

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.08.07 05:28:11 Z